te bizitzaren erdian, eta irudikatzen du bikotekideek nola dituzten atzetik sekretuak, eta nola ezin diren saihestu.

Liburu guztiak mintzo dira akaso liburu bat idazteari buruz, baina hau bada zerbait kontatzeko zailtasunari buruzko kontakizun bat. Hala ikusten duzu zuk ere?

Ulia da nobelako pertsonaia, eta haren ikuspegitik kontatzen zaigu dena. Ulia ari zaio guztia kontatzen bere bikotekideari, eta, tarteka, zailtasun asko topatzen ditu. Zailtasun horiek batzuetan izan dira nireak ere, eta beste batzuetan, ez. Hor ere nahasten dira narratzailearen ahotsa eta nire ahotsa, eta izan daiteke jolas metaliterario bat ere, liburua maila horretan irakurri nahi bada.

«Mito misoginoak ere erreproduzitu ditu euskal gatazkak. Oso maskulinoa izan da. Oso matxoa»

«Gerra egiteko beti egon dira aitzakiak, eta gure ésku egon da aitzakia hori hartu edo ez hartzea»

«Euskal Herria ez da oso handia, eta apur bat parodikoa ere bada horregatik liburuko auto bidaia»

Eta zailtasun horiek zein izan dira, adibidez?

Pertsonaiarentzat zaila da erabakitzea, adibidez, zenbateko informazioa eman eta suspentsea noraino luzatu. Hori ez da hainbesteko zailtasuna izan niretzat, baina bai liburua amaitzea. Bukaerara iristea. Ia estalagmita baten modukoa. Tanta bat, tanta bat... ematen zuen ez zela amaituko.

***Sua falta zaigu* eta *Habitat*. Ipuin liburuak dira zure aurreko bi lanak, eta esango nuke nobela honek ere ipuingile bukaera duela. Borobiltzera jo duzula.**

Ba, jende askok galdetu dit ea zer gertatzen den gero, eta esan didate ez dudala amaitu. Nire asmoa bazen amaitzea eta borobiltzea; ez nuen utzi nahi suspentsean.

Amerikan, *road movie*-ak bide bat izaten dira amerikar nobela handia kontatzen saiatzeko. Euskal Herrian, errepideak hainbesterako ematen du?

Hori zen erronka. Ematen du joan behar duzula Nevadara edo Oklahomara Thelma eta Louise bezala halako zerbait kontatzeko, errepide luzeekin, inor ez dabilela... Apur bat parodikoa ere bada liburuan aipatzen den auto bidaia horregatik. Egun batez, pertsonaiak hasten dira herriak bisitatzen, eta amaitzen zaie dena berehala. Donostiara bidean, adibidez, erabakitzen dute Tolosan geratzea, bestela segituan helduko direlako. Bigarren mailako errepideak hartzen dituzte horregatik, autopistaz bestela are azkarrago helduko liratekeelako. Badauka kutsu parodiko hori niretzat ere.

Getariako landetxe bati buruz, protagonistak: «Gela hau baserri munduaren antipodetan dago, baina horrela gogoratu nahiko genuke gure iragana: usain onez». Eraman daiteke gogoeta hori gatazka politikora ere?

Ez nuen horregatik jarri, baina beti gertatzen da hori: prozesu psikologiko normal bat da gauza onak gogoratzearena. Horretarako prestatuta gaude, eta edozein gauzari aplikatzen ahal zaio, baita euskal gatazkari ere. Gauza asko ez ditugu gogoratu nahi. Horregatik aukeratu dut gatazkaren emaitza lazgarriena izan daitekeena. Muturrera eraman dut, ze umeak hiltzea izan baita liburuko presoaren krimena. Hori baino okerragorik ez dago gure gizartean, eta nahita jo dut muturrera, gogorarazteko hori ere gertatu dela. Ez dira gutxi izan bonbak direla-eta hil dituzten umeak.

Benjamin Britten konpositorearena da nobelako beste harietariko bat. Muturreko bakezalea bera, baina aski keinu itsusikoa ere bai. 1936ko gerrako ume bat etxean hartu, baina, sorkuntzan traba egiten ziola eta, bueltan bidali zuen errefuxiatu gunera.

Bakezalea zen, baina bakezale izatea ez da ontasun moral absolutu bat; ez du esan nahi pertsona ona zarenik. Berak oso argi zuen bere lehentasuna sorkuntza zela, eta, gainera, ume hori etxetik botatzeko ere, beste norbait bidali zuen. Gatazkari beti muzin egiten zion. Hor dago: bakezalea zen, edo koldar hutsa? Igual, gauza biak nahastuta egon daitezke. Sorkuntzan aritzeko, uko egiten dio berak ere beste ume bati. Babesgabeena, umezurtza, bere herritik kanpo, eta hala ere...

***Atertu arte itxaron*. Hori da titulua azalean, baina, barruan, badirudi mezua kontrakoa dela. Benetan ez duela inoiz atertzen.**

Anekdota batekin kontatzen da liburuan. Gasteizen dago bikotea; paseo bat ematera atera behar dute, baina, euria hasi, eta hemengoa ez den gizonak atertu arte itxarotea proposatzen du; neskak, ordea, ezetz, atertu arte itxaronez gero agian ez direlako inoiz irtengo. Edozein egoeratara eraman daiteke hori. Batzuetan, aurre egin behar diegu gauzei.

'Txanpaina, mesedez' nobelan genero poliziakora jo du Oier Santosek

Bi planotan bereizia dago narrazioa: batean, ertzain bat da protagonista; bestean, haren emaztea • Egun eta hemengo gizartea islatzen du obrak

Juan Luis Zabala *Donostia*

Bi planotan bereizita, irakurlea ezusteko amaiera baterantz daraman nobela poliziakoa da Oier Santosen (Errenteria, Gipuzkoa, 1982) bigarrena, *Txanpaina, mesedez* (Erein). Plano batean, Markel da protagonista, BETA izeneko talde armatu ekologistak eta haren ekintzek nahigabetu, kezkatu eta beldurtuta daukaten ertzaina, horrez gain etxean ere zertaz kezkaturik baduena, emazteari zerbait gertatzen zaiolako susmoa baitu. Beste planoan, Ane da protagonista, Markelen emaztea, senarra oso maitea duen arren eta harengatik edozer gauza egiteko prest dagoen arren ezkutuan beste bizitza bat daraman emakumea. Bi plano horiek nobelaren azken partean nola lotzen diren ez du azaldu nahi izan egileak, horrek amaierako ezustea hondatuko liokeelako irakurleari. «Ez dakit ezustea hartuko duen irakurleak, baina nire asmoa hori lortzea izan da, behintzat», adierazi du.

Euskal Herrian girotuta dago kontaketa, Donostialdean zehazki, eta egungo gizartea islatzeko aukera eman dio liburuak, neurri batean behintzat, egileari. BETA izeneko talde armatu ekologistak erasoak egiten ditu lurralde horretan, horrek albiste aldrebestuak eragiten ditu hedabideetan, gizartearentzako mehatxu bilakatzen da talde armatu hori... «Gaur egun, politikan dena dago nahasita, eta nobelan islatzen da gizartean dagoen deserosotasuna edo haserrea, bai jendearengan eta bai hedabideetan», azaldu du Santosek. «Nobela gaur egungo egoera batean kontestualizatuta dago, Fukushimako istripua gertatu eta geroko giroan, eta egungo errealitatean oinarrituta».

Hedabideen itzala

Hedabideen eragina eta itzala ere ageri da *Txanpaina, mesedez* nobelan. «Kazetariek gertatu aurretik dakite batzuetan albisteen berri, eta poliziek baino are lehenagotik dakite zer gertatuko den. Horretaz hitz eginda, ertzain batek baieztatu zidan hori errealitatean ere askotan horrelaxe gertatzen dela, hedabideek Poliziarekiko oso eragin handia izaten dutela».



Oier Santos, liburuaren ale batekin, atzo, Donostian. ANDONI CANELLADA / ARP

Nobelan islatzen da gizartean dagoen deserosotasuna edo haserrea, bai jendearengan eta bai hedabideetan»

Oier Santos
Idazlea

Duela hiru urte argitaratu zuen Santosek *Ez zuten erantzun* (Erein), bere estreinako nobela. Ez du antz handirik sumatzen obra haren eta *Txanpaina, mesedez* nobela berriaren artean. «Bi planoen arteko bereizketan eta denborarekin egiten den jokoan badute agian antzik, baina, gainerakoan, oso harreman txikia dago bien artean. Unibertsitate giroan dabiltzan gazte batzuk dira protagonistak aurrekoan. Honetan, aldiz, jende helduagoa agertzen da, eta beste bizimodu batekoa. Nobela honetan, gehiago islatzen da gizartea oro har aurrekoan baino».

Heziketa Fisikoko irakaslea da Oier Santos, eta lanbide horrek uzten dion «denbora librea» baliatzen du idazteko. «Ez dut obligaziorik, eta oso gustura aritzen naiz idazten. Dibertigarria iruditzen zait».